

DANI BLANCO



Bingen Zupiria

Urki laztana

Kaixo Urki. Ez zaitut ezagutzen. ARGIAko orrietan irakurri dut zure berri. Antza denez 5 urte dituzu eta 630 kilometro egin behar dituzu, batez beste, gurasoak ikusteko, zure aitona-amonekin batera. Espetxean omen dituzu gurasoak; ez dakit non eta ezta zergatik ere. Erreportajearen egileari ez zaio garrantzitsua irudituta detaile hori, ez baitu zer ikusirik zure sufrimenduari, eta zure modura aste-buruak autobusetan igaro behar dituzten beste milaka seniderenarekin.

Nire haurtzaroko Hernanin ere, detaile asko ez ziren garrantzitsutzat jotzen eta ez zizkiguten denbora askoan kontatu. Hernani herri lasaia zen. Eta itxuraz denok bakean bizi ginen. Politika kontuetan sartzen ez zenari bakean bizitzen uzten zioten. Hernaniko kanposantuan guda zibilean izandako hilketak, alargunen tragediak, kartzela eta heriotza-zigorrrak, ... isilean geratu ziren. Aurrerago, koskortzen hasi ginenean, gure lagun batzuen gurasoak gerran Francorekin ibili zirela jakin genuen; gerratik herrira irabazle itzuli zirela eta haien legea nagusitu zela gure herrian. Jatorrak eta atseginak ziren, eta haien etxeetan beti ongi hartzen gintuzten. Hori bai, ez zuten ongi ikusten guk euskaraz hitz egitea edo kantatzea. Eta ez zuten onartzen haiek egindakoari buruzko galderarik edo komentariarik egitea. Gainerakoan dena normal.

Demokrazia iritsi zenean, berriz, beste batzuek hartu zuten agintea nire gaztaroko Hernanin. Baina, berriz ere, herrian gertatzen ziren gauza askoren detaileak isilean geratu ziren. Hobe zen haietaz ez hitz egitea arazorik ez edukitzeko. Gogoan dut, Urki, zure adina zuten haur batzuen aita tabernaria kale bazter batean seko utzi zutela tiroz hilda. Haren seme-alabek gurekin ikasten zuten ikastolan, baina hobe zen gertatutakoz ez hitz egitea. Seguruenik, gainera, zerbait eginga izango zuen horrela bukatzeko! Urte batzuk geroago jakin nuen Hernaniko beste ezagun bati hankan tiro jo ziotela. Eta beste bati gutun azal bat utzi ziotela lantokiko mahai gainean, langileen bistan. Hartzaileak ez zion kasurik egin jasotako mezuari. Handik aste batzuetara haren etxeko postontzira iritsi zen antzeko beste gutun bat, baina bigarren honetan emaztearen izenean bidalia. Gure ezagunak, etxekoen beldurrak bultzaturik, eskatzen zioten dirua ordaintzea erabaki zuen, horrela bakean utziko zutela pentsatuz. Baina alferrik. Hurrengo urtean beste bat jaso zuen, eta hurrengoan beste bat... Baina, bueno, garrantzirik gabeko detaileak ziren horiek ere, eta garrantzitsuagoa zen beste batzuen sufrimenduari erreparatzea.

Ez dakit, Urki laztana, zer etorkizun tokatuko zaizun zuri. Ez daukazu bizi duzun egoeraren errurik eta ez da bidezkoa zure gurasoen egindakoaren ondorioak zuri ordainaraztea. Zure joan-etorriak gero eta laburragoak izatea opa dizut, eta ahal bada behintzat, zure aita eta amaren konpainian koskortzea nahi nuke. Ez dakit handitzen zarenean zure gurasoen ekintzen detaileak garrantzitsuak irudituta zaizkizun. Askok esango dizute, lehen gertatu zen bezala orain ere, hobe izango dugula gertatutako guztia ahaztea eta aurrera begira jartzea. Hernaniko tabernariaren semeek, halere, seguruenik nahiago lukete haien aitari gertatutakoari norbaitek garrantzia ematea eta egindako kaltea onartzea. Ez dakit inoiz haiekin bizitzea tokatuko zaizun, baina hala balitz, zuen harremanak oztoporik ez edukitzea nahi nuke, eta ahal dela elkarrenganako errezelarik gabe koskortu, hazi eta elkarrekin bizi ahal izatea.

Izan ongi, Urki.



Demokrazia iritsi zenean, beste batzuek hartu zuten agintea nire gaztaroko Hernanin. Baina, berriz ere, herrian gertatzen ziren gauza askoren detaileak isilean geratu ziren. Hobe haietaz ez hitz egitea arazorik ez edukitzeko